

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren Urtea - Pamplona - Mayo 1967 - Maiatza - Iruña - 15'gn zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

## AITZIBER



Izen politik balin bada AITZIBER da bat Eskualerrian. Ez Aitzibar, norbaitek aldatu nahi izan duen bezala. Sarabe'ko aitzia eta ur bazterretako altza, ez dira gauza bera. Urdindarrak badakite oraindik eskuaraz, eta AITZIBER esaten dute beren aurrekoak bezala. Ongi esana.

Urdain'go beko basoan du bere kabia Aitziber'ko Ama Birjinak. Erriko lurrik obere-na ez bada ere, ba ditu bi gauza Sarabe'k inun besterik ez direnak: Jentilen aitzia eta Aitziber'ko Ama Birjina. Biak buruz buru; elgarri begira biak... ameslari, ixil-ixila.

Beste bi gauza ditu galtzen utzi: San Migel'en baso-eliza eta Aitziber'ko plaza. San Migel erre egin zen eta etzuen inork ere jaso, Aitziber'ko plaza, berriz, an dago; baño, oraiko gazte jendea ez dago an dantzan ibiltzeko.

AITZIBER'ko Andra Mari'ren mutilik obere-na Jentilen aitzia dela esango nuke. Negu eta uda, antxe dago beti aizea kendu edo itzal egiteko. Ba-du jentilen sukaldia, surik gabeko labe mutua, sinesterik etzeneko barne otza bezala; eta gain gainean jentilen leio, arrizko begi-zulo itsua, ezin ikusi duen Ama Birjinari begira.

Ez da izenez bakarrik polita Aitziber'ko Ama; izan ere, ederretan ederra! Amalau-

garren mendekoa izanik, ikustekoa da aren aurpegi gozo eta begiratze zorrotza. Eskuak nun zituen ba-zekien ura egin zuen gizonak. Jarri-ta dago bera, ezkerreko belanean duela semea.

Aurrak berriz, Txomin-erne aurreratu bat dirudi. Ez da onezkoa aren barre egiteko modua. Duen adinarendako geiegi dakiela esango luke bere amak. (Barkatu; baño ala da).

Aipatua zen garai batez Aitziber'ko Andra Mari. Frantziatik asi-ta etortzen omen zaizkion jendeak. Eta ekarri ere bai eskeintza franko. Fededunen eskutatik artutako bei eta ardi saldoaren zaintzeko, beste egitekorik gabe, emakume bat ibiltzen omen zuten. Eta oraindik ere, Andre-etxea esaten dakio Elizak alde batetik duen sukaldeari.

Zaharren esana da aldien batez berritu egin zutela eta len zen baño motzago gelditu. Andik asi zela jendea gutxitzen, eta gero erabat ixildu. Ala ba-zen ez ba-zen, duela urte gutxi izan zuten Madril'en eta garbitu ondoan, zer edo zer luzatu dute.

Aitziber'ko Andra Mari'ren izena aipatzean, Eskualerriak duen aberastasun aundi bat adierazten dugulakoan egiten dugu. Eta zenbat olako gauza jakingarri estaitzen ote dira gure erri txikitari!



## MUNDU ZABALEAN

El acontecimiento principal ha sido la publicación de la Encíclica «Populorum Progressio» por el Papa Pablo VI. La Encíclica es un llamamiento a los pueblos de alto nivel de civilización para que dirijan sus esfuerzos a elevar la vida de las naciones atrasadas, muchas de ellas sumidas en la miseria y en la incultura. Como es sabido estos problemas se dan principalmente en las nuevas naciones de Africa, en América del Sur y en vastas regiones de Asia.

La Encíclica es una reflexión grave, profunda y directa que recuerda a todo cristiano la obligación de hacer algo por sus semejantes.

Por lo demás, la noticia más importante es la nueva victoria de la política del General De Gaulle en Francia, aunque se ha observado el progreso de los partidos de oposición, más inclinados hacia la izquierda.

Los Estados Unidos intentan un nuevo compromiso para poner fin a la guerra del Viet-Nam, hasta ahora sin resultado.



## ESPAÑIAKO GAUZAK

Continúa desarrollándose la Ley Orgánica aprobada recientemente por el referendun nacional. Distintas disposiciones en elaboración o proyecto, van preparando la ordenada evolución política de España. Parece ser que para mediados de año funcionarán las Cortes elegidas por el nuevo procedimiento.

También se discuten en Cortes nuevas disposiciones tributarias (como por ejemplo el impuesto sobre la renta) con orientación moderna y basadas en criterios de mayor justicia social.

Paulatinamente van venciendo las dificultades con las que se encuentra la industria nacional, dificultades que en el fondo se originan por un desarrollo rápido. Las dificultades son inherentes a una industrialización acelerada de nuestra Patria que —con gran esfuerzo— se incorpora a la lista de países desarrollados.

El año 1967 exige el esfuerzo y la unidad de todos los españoles para estabilizar los resultados obtenidos y plantearse, con las experiencias obtenidas, un nuevo salto hacia el porvenir.



## NAPARROKO BERRIAK

Apillaren lehenbiziko egunean sartu da bere eginkizunetan gure Diputazio berria. Berrituak izan dira Amadeo Marko, Jesús Fortún, Angel Bañón eta Francisco Elizalde jaunen izendamenak.

Ona emen bakoitzak aditzera emandako zombait pundu:

«Denok Naparroaren alde lan egiteko asmorik oberenekin...» (Amadeo Marco)

«Au da, jaunak, Naparroari buruz gure egitekoa. Gure borondate eta gure nekeak Diputazioak Naparroko gizonen aurrerapen, eta bizitze oberean bultzatzeko duen egitekoa betetzea...» (Lendakari jaunak)

«Bat egin dezatela. Izan ditezela denak batendako; eta bakoitza denentzat» (Gobernadore jauna).

Zorionak kargudun berrieri eta gure nahikari obere-na beren egitekotan uzta ona ikus dezaten.

El día 1 de abril, se constituyó la nueva Diputación, jurando sus cargos los Sres. Diputados don Amadeo Marco Ilincheta; don Jesús Fortún Ardáiz; don Angel Bañón Mingo y don Francisco Elizalde Goldaraz.

Reproducimos los párrafos más señalados de los discursos:

DON AMADEO MARCO: «...animados todos de los mejores deseos de trabajar en beneficio de Navarra...».

EXCMO. SR. VICEPRESIDENTE: «...Esto es señores, nuestro deber respecto a Navarra. Poner todos nuestro empeño y cuantos sacrificios personales sean necesarios para lograr que la Diputación Foral estimule constantemente el desarrollo social, humano y económico de Navarra...».

EXCMO. SR. GOBERNADOR CIVIL: «...que permanezcan unidos que sean todos para uno y uno para todos».

Nuestra felicitación a los nuevos diputados y nuestros más sinceros deseos de éxito para la nueva Corporación, por el bien de Navarra y España.

# LUKASEN LAGUNA



Lukasek badaki ongi Aitziber'ko Ama Birjinaren berri. Altsei eta guarda izana bere gazte denboran, amaika aldiz egin du lo Aitziber'ko andre-etxean. Berak ala dio beintzat.

Su bazterrean dago gu sartzean. Behar denean egurra erretzeak ez dio minik ematen Lukasi. Sanjuane-tan ez omen du su beharrik. Betiko Lukas! Bere irri polit batekin jarri-zi gaitu.

—Maiatza heldu da, Lukas!

—Bai nahi badu. Urteko egunik pobrenak orai dira.

«Kukua etorri, gosea etorri; kua jun, gosea jun», esaten zuten lengo gizonak. Eta ori egia da...

—Aitziber ere orai ekarriko dugu errira.

—Joan nahi nuke ikustera. Gusto-ra egoten naiz. Lagun onak izaten ginen. Beti an ibiltzen nintzen ta, ondo konpontzen ginen biok. (Barre ezti batekin esan ditu azken itzak).

Orai dela urte gutxi berritua da Aitziber'ko Andra Mary. Gogoan dute erriko jendeak Lukasek egin zion abegorri eta ongietorria. Ezeren begiramendurik gabe aldare aurrera joan eta nola egondu zakion begira!

—Lengoa bera zen ikusi nahi nuen. Eta ura zen!

«Akordatzen zã nerekin?», galde-tu nion. Eta arek ezagutu!!!

Barre egin zuan. Pozik etorri nintzan etxera.

—Len zanetik diferentziarik bilatzen diozu?

—Bai. Bajutxu txiki bat izaten zen len. Orai altatu egin dute. Nik aditu izan dut, garai batean jende asko etortzen zala Aitziber'engana; frantzesak eta guzti!

Gero egin omen zuten, moztu; eta akabo! fedia galdu.

—Len bezala edo orai dago obeki?

—Orai obeto. Gaztetu ta guzti egin dute. Neskatx bat bezala gelditu da! Kurioso, ondotoxo dago.

Len musu gorri-gorri batzuk izaten zituen...

Lukasek erantzunak bizitasunez beteak izaten dira bere bi begi txikiak bezala. Asko daki eta orai beste gauza batera goaz:

—Noizkoa ote da Aitziber?

—Uuuu! Zoaz noizkoa izango den! Aspaldikoa.

Nik eztaikit nola konponduko zen jentilekin; baño jentilak egina izango da etxe ori...

—Altsasuarrak Santa Isabel esaten diote. Ala ote da?

—Altsu'ko gauzak dira oiek! Uste dute «Erkuden», «Aitziber» eta Santa Marina, aizpak direla iruak.


Ba-zen Urdin'en gizon bat, Fermin Celaya, gezurtiya ta jenerua. Nerekin asko ibiltzen zan. Arek esan zidan, ikus zituela Erkuden eta biak Aitziber'ko plazan elkarrekin dantzan.

«Eh! Eeeh! Ori re ba-dugu?, garaxi egin zuela.

Eta biak bi alde joan omen ziren. (Alakoa zen ura)

Beste gauza asko aterako zituen Lukasek; baño, uste gabe, illundu egin zaigu. Su ondoan irakiten ari den urak beste zerbait eskatzen du; eta semearen afaria prestatzen asi beharko. Ez diogu denborarik galduazi nahi.

Etterakoan pentsamendu bat nuen bakarrik buruan: ori da, ori, gizonaren fedea! Berriz ere barre egingo ez dio Aitziber'ko Ama Birjinak!!! Lukas balitz munduan nahasiena!!!



ELIZAREN  
ITZA.

## BATIKANO'KO II BATZAR NAGUSIA

### KRISTAU BATASUNARI BURUZ

Zenbatenaz garbiagoko bizikera, Ebangelioaren arora, eramaten duten kristauak, zurrango sortuziko dute batasuna; Aita zerukoakin batuago, senideakin elkartuago.

Santutasuna, otoitza bakarkakoa naiz elizarena, maitasunarekin oratuta izango dira geienik kristauen oreka batasuneraño arrotuko duen orantza, ez du onek esan nai gañerako sinisgaiak alde batera utzi bear direla, ez oikin gezurrezko nasketarik gabe, elkar obeki aditzeko grazi eta argia Espiritu Santuak izango duela «Bi edo iru nere izenean bildurik dauden tokian an nago Ni beren erdian» (Mt. 18,20).

Ikasi bear da senide berextuen pentsakera, jakintza, kezka, gogo jarduna, ez akatxak billatu naiean, on ustez besterik, egi billa; lan ori trebatuek egokiena burutzen al dute, elkar-itzketa berdiñean.

Senidekiko elkar-itketan, gure katoliko sinismena bete-beteazaltzeak ez du eragozpenik sortu bear, garbi jokatzeara nai ta naiezkoa da, irensean taldan bat kaltegarri litzake, ots, gure egiak esaltzea edo besteren aldera azpikeriz makurtzea.

Gure sinisgaiak sakonago eta zuzenago azalduaz, gure senide berextuak bikañago aditu eta ulertu dezateke katolikoan jokera.

Sinisten ditugun egitan, batzuk besteak baño garrantzi geiago dute, ordea, dio Batzarrak, fedearen oñarriakin estuago aienaturik daudelako.

Kristau mota guzik, munduaren aurrean aitortu bear dute Jainko bakarra iru personetan, Seme gizon egiña, gure erosle eta jauna eta denok arren baitan daukagun itxaropen ustelik gabea. Gaurko egunetan, gizarte arazotan denen alegiñak batera bearrezkoak bait dira, Jaungoikoaren baitan sinisten dutenak eta askoz geiago kristau guzik alkar artu bear dute, Kristo serbitzariaren aztarnari jarraituz. Auzolan ontan sartzen dira gizonaren nortasunari dagokion begirunea, pakean aldeko saiok, langilleen eskubideak, gose eta gaitzal-diak sortzen dituzten makurrak, bizi tokiak ugaritzeak eta aberas-tasunen plantazko banatzeak e. a. olakotan elkarrekin ekiteak le-gunduko ditu zimur franko eta errextu batasunerako bidea. (D. E. cap. II, 8, 9, 10, 11, 12).

## ESKUALERRIKO LEJOTA



Apirillak 23. Igandea. Eskualerrian bazen mo-bimendu. Gipuzkoa'ko bertularien saioa Mayat-zaren bost'eko utzi ondoan, Eskualtzain-buru den Lekuona jaunaren omenaldiak izan zuen egu-naren betetzeko gaia.

Oyartzun'go seme agurgarri Imanol Lekuona jaunak, bere apezteko berrogeitamar'garren urte urrena zuela ta, eskual jai eder bat prestatu zion bere sort-erriak. Urrezko ezteiak.

Norbaitek merezi balin badu, Lekuona jaunak merezi du! Egun txarretan tokatu zaio; eta alare nolako lana ez du egin Eskualerriko baratzee auz-tan!

Izkuntzaren aldetik eta edergaien azterketan; erri jakintzaren aldetik eta bertsu gaietan lehen maillako izena dugu gure artean Imanol Lekuona jaunaren izen aundia.

Euskualtzaindia ezin zen kanpoan gelditu bere zuzendari agurgarriari egindako omenaldian. Gañera, buruari egindako ohorez ohoratua izan da bera ere. Itzaldi mamitsu eta zorion biotzekorik entzun du Lekuona jaunak.

Biramonean, eskualdun apezzen billera: 390 eliz gizon, anai onaren inguruan. Zorionak don Manuel eta urte askoz!



Bilbao'n ere ba zen eskual kutsuko festa. Au ere 23'an. Erriko etxearen 75'gn urte burua zela ta olerki sariketa bat eratu zuten. Erdaraz eta eskuaraz egindako lanak onartzen zituzten. Len-biziko saria Alfontxo Irigoyen, adiskide maiteak jaso du.

Alfontxo ezaguna da gure artean. Bertularien saiotan berak ematen dizkie puntuak. Azken aldi ontan sari onak irabazten ari zaigu. Denbo-ra gutxian bigarrena du au. Gora dijoan gizona. Zorionak.



Eta lengoan aipatu beharra, ba dugu beste berri lehen maillako bat: Mitxelena Salamanka'ko erakusle. Gizon aundiak urrutitik eta itzal aundi-go! Gure artean zelarik aunditako ba ginau-kan, zer esango dugu orai?

Min pixka batekin eman nahi berri au: gure artean ez egonak ematen digun mina; eta es-kualerrian bere seme aundien neurriko jantzir-rik ezteia ikusteak ematen digun lotsa-mina...

Nola nahi dela, ba da posteko biderik ere. Mundu zabaleko bidetan ba dira beti eskualdun aundiak. «Lingüística indo-europea» delako eskol

nagusiko alxia irabaztean, Eskualerriaren izen ona oso gora darama bere-kin, adiskide on Mitxelena jaunak.

Osasun eder bat opa diogu, bere egitekoa, dezakenaren neurrian bete dezan. Eta uste txarrik gabe, Eskualerri'ra begira biziko dakigula esate-kotan nago. Eta behar bada len baño gehiago.

Emen ba zinaude bezala, guk ere noiznahi zuregana joko dugu. Eskua-lerri'tik Salamanka'ra goraintzi!

# EL AMOR AL PROPIO IDIOMA

A uno, tras tantos años de lejanía de su tierra extremeña, aún se le enredan los acentos en un deje que es una forma de vinculación profunda. Y digo yo que eso es bueno, porque honra merece el que a los suyos se parece, y en esta crisis de las patrias que vivimos —de lo que antes se entendía por "patria" y que ahora empieza a cobrar un sentido mucho más rico—, cuando el hombre descubre la universalidad de su destino —ciudadanos del mundo, como quería San Pablo—, vamos entendiendo que al fondo del amor por la gran patria que es el mundo, donde los hombres todos somos hermanos, tiene que estar la raíz de un amor más antiguo y local: el amor al paisaje, al apellido, a las canciones y al idioma que han hecho nuestra propia persona y el prado común de la familia.

A mí me encanta que los catalanes y los vascos amen su idioma, que lo cultiven, que lo defiendan, que luchan por él. La unidad de un país, la unidad de éste país, no puede ni debe construirse sobre un ce-

rril centralismo que uniforme a sus hombres, tan distintos. Reconozcamos y aceptemos, de una vez para siempre, que España es una pluralidad, aunque aceptemos su unidad de destino, en frase bien conocida. Que el gallego es social y psicológicamente distinto del valenciano o el andaluz. Que el vascuence es un bellissimo misterio lingüístico que nos enorgullece y que el idioma catalán ha aportado páginas gloriosas y nombres inolvidables a la cultura hispana. ¿Por qué, pues, no se enseña el catalán y el vascuence, con el castellano, en los centros docentes? ¿Por qué esta absurda táctica de "apartheid" que convierte el sencillo hecho de hablar euskaro o de bailar una sardana en un complot político? Alfonso de la Serna acaba de decirlo, también, en ABC: "En nuestra patria caben varios bilingüismos sin que sufra menoscabo la unidad nacional ni menos aún la grandeza de la común lengua mayor castellana". Más de cinco millones de españoles hablan catalán; un millón de personas hablan vasco. La

iglesia ha incorporado ambos idiomas a su liturgia. Pero vascos y catalanes no tienen dónde aprenderlos, salvo en el hogar, y un idioma sin docencia es un idioma llamado a sufrir gravemente en su integridad. Reconsideren, pues, "quienes correspondan", que el hecho de que en España se nos perdiese el vascuence o el catalán sería una desgracia para la cultura del país y una destrucción del común patrimonio histórico.

PEDRO RECIO

"Vida Nueva" Errebistatik artua.



# KALIFORNIA'KO BERRIAK

Gaur emen dakarzkigu Lekaroztar mutil gazte batek Kalifornia'tik igorritako bertsoak. Bere sor-lekutik urrun antxe bakardadean eta erriko-minez, gure adiskide maite orrek bere naigabeak bertso hunkigarri oken bitartez agertzen ditu.

— 1 —

Sor-lekutikan ateraia naiz  
orai duela urtia.  
Eta oraindik lekuarentzat  
badaukat borondatia.  
Biotzetikan gogoratzen naiz  
O Euskalerrri maitia!  
Bertan gelditu izan banitzan  
egingo nuen suertia.

— 2 —

Amerikako berri batzuek  
gaur bear ditut nik erran.  
Emengo berri ez dakienak  
biotzez ikasi dezan.  
Guretzat ezta leku onekin  
fortuna aundirik izan.  
Itz baterako naiago nuke  
Euskalerrrian banitzan.

— 3 —

Zakurrak ditut lagunak beti  
lan egiteko ardiak.  
Eta barrenara urus-azteko  
kuyotiaren irriak.  
Pentsatu ola zuzen egoiten  
lan badaukala buriak.  
Gisa oberik gabandanikan  
pastuko dira guriak.

— 4 —

Pena askotaz gogoratzen ta  
zorionetik maiz utsa.  
Gusto egiten ezta errega  
ogei urtetan gorputza.

Eta gainera artzainak dugu  
pagamentu bat eskaxa.  
Mendi zokuan beti bakarrik  
ez bizi modu urusa.

— 5 —

Aurrera ere segi bear dit  
bizi modua kontatuz.  
Eguna nola pasatzen dudun  
ardiak ezin yuntatuz.  
Aste pixka bat daukatenian  
bertso batzuek kantatuz.  
Eta Yaunari bertze munduan  
leku obe bat eskatuz.

— 6 —

Euskalerritik etortzen dira  
Amerikara artzaiak.  
Ta batez ere ardurenean  
ogei urteko gaztiak.  
Edade ortan lan aundia du  
ola denbora pastiak.  
Gero gibelat itzuli bear  
erdi burutik nasiak.

— 7 —

Desgrazi oiek ez ikusteko  
izaten dira obiak.  
Eskatu gabe etortzen dira  
okerrerako bidiak.  
Suerte aundirik ezta izaten  
munduan gizon pobriak.  
Bainan ez dauka aunitz geiago  
aberats buru gabiak.

— 8 —

Orra oraingo nere bertsoa  
Nafarroa'ko lagunai.  
Kasu sobera ez egiteko  
Amerikako fortunai.  
Sor-lekua ongi maitatu  
zeren aita eta amai.  
Nere lagunak disgustorikan  
ez baduzue artu nai.


— 9 —

Bertso berriak ezarri ditut  
ezyakinaren gañian.  
Yende gaztia etortzen baita  
balinbadago premian.  
Denbora dela yakin dezaten  
arkitu gabe penian.  
Leku obeak bear direla  
gazte sasoiko denian.

— 10 —

Azken bertsoa kantatuko dut  
pena guzien ondotik.  
Interesatzen diren yendiek  
ikas dezaten gogotik.  
Ama urruti ikusten dela  
unet etorritz geroztik.  
Nai dan guzia sayatuta ere  
eztu kenduko burutik.

Bertso berriak  
Migel Baraibar'ek jarriak.



## YESUS YAUNA, Yondoni Petri eta orga uzkaillirik (1)

Jesus Yauna eta Yondone Petri  
apostolua bidean zoazilarik Euskal  
Herrian, kausitzen dute gizon bat  
orga uzkaillirik, belauniko Yainkoari  
otoitzean orga altza zezon. Jesus al-  
detik iragaiten zaio batere beiratu  
gabe.

Urrunago joan eta, kausitzen dute  
bertze gizon bat, orga uzkaillirik ere  
bere orgari ari zena, emendik har  
eta andik altxa, indarka, kexatua  
izerditan etsaiaren izenak eta oro  
erranez errabian.

Jesus Yaunak berehala erraiten  
dio Yondoni Petriri. «Haugi, gizon  
ori behar diagu lagundu beren orga  
alxtatzen».

Yondoni Petrik erraiten dio: Zer  
Yauna, jaixtiko gizona ez dugu la-  
gundu otoitzean ari zelarik, eta hau  
behar dugu egin orai, etsaiaren ize-  
nak eta oro erraiten dituelarik!

Eta Jesus Yaunak ihardetsi zion  
Yondoni Petriri:

«Hunek egin ahalak egiten ditik  
eta harek ez».

(1) Orga uzkaillirik = Orga irau-  
lirik, itzulikatuturik.

# «ORIXE» ZENAREN OROIMENEZ



Nikolas Ormaetxea «Orixe» zena  
Gipuzkoako Orexan sortu zen, 1884'  
go abenduaren 6'ean, eta 1961'go  
Agozturaren 9'ean Añorgan illa.

Guk naparroak Gipuzkoan jaio ba-  
zen ere Naparroko semetzat izaten  
dugu, eta naparrokoa zela diogu,  
eta berak ere napartarra zela zion.

Au esateko badugu, eta berak ere  
bazeukan, arrazoia. «Orixe» iru  
umezko erditza, edo aur egite ba-  
tean mundu ontara etorri zen, bere  
amak «Orixe» zena eta beste bi ume  
erditu zituen, beraz «Orixe» iruki  
izan zen. Iru umeak semeatzat izaten  
geiegi izanik amarentzako eta, «Ori-  
xe» Naparroko U hiziko errira era-  
man zuten jaio eta laister, eta or-  
dudunik U hizin bizi izan zen, an  
azi, ezi, U hiziko euskeraz ikasi, eta  
dena.

Aita Onaindiak esaten duenez  
«Gizon azkarra, ziñez, eta edozein  
gaietan oso jakintsua baiña batez  
be (ere) euskal barrutian» (Milla  
Euskal Olerki eder -liburutik artua).

«Orixek» liburu aunitz, euskeraz idatziak, argitara eman zuten: Fama-  
tuenetan: «Santa Cruz Apaiza», «Tormesko Itsu Mutilla», «San Agustinen  
Aitorkezunak», «Mireio», baño batez ere, «Barne muinetan», «Euskaldun-  
nak» eta «Urte guziko Meza Bezperak».

«Euskaldunak» izenez dena, bertsoan izkribitua dago, milla ta milla  
bertsoz osotutako liburua da, eta bere argumentua, bere gaia, Euskalerriko  
oiturak dira, gure Naparroan, U hiziko errian gertatua. Liburu onek merezi  
du bai ezagutzea! Euskal bizia bertsoan emana!

Ona emen «Euskaldunak» liburutik artutako iru bertso, lenengo, bi-  
garrena eta azkenengoa.

1'goa

2'gna.

Zatokkida, Goi-arnas,  
eizu nerekin lan,  
erri baten arnasa  
mamitu dezadan.  
Geroak esan beza:  
«Erri bat izan zan»,  
edo-ta ats emaiogun  
ontan irauñ dezan.

Naparroa zarrean  
Larraunen Uitzin,  
belar goxo tarteen  
eper kabi iduri.  
Belardien inguruz  
kabi orren esi  
baso maitea dago,  
ikazkin lantegi

Azkenengoa

Bertsolariak oitura baitu  
esaten urtegarrena,  
bertso-lan oni yakin zer urtez  
eman diodan azkena:  
Kristo jaiorik emeretzireun  
ogei ta amalagarrena...  
Ederrik ba du, Arena du, ta  
txarrik ba du, neronena.

Olako bertsoek «Orixe»-ren giarra, yakintasan eta ezagutza erakusten  
dizkigute.

Euskaltzaindiak, edo Euskal Akademiak Euskalzain edo Euskal Aka-  
demiko izendatu zuten eta Leitzan bera Euskal Akademian sartzeko besta  
ospatu zen, Leitzako Aiuntamenduako etxean bere lezioa edo itzaldia  
«Orixek» eman zuten.

«Orixek» yakite aundiko gizona izan zen, eta gurea gañera, giputze  
edo naparra, dena dela, Euskalerriko semea zen, alde batetik edo bestetik  
ikusirik.

Goyan bego Nikolas Ormaetxea «Orixe» zena!  
Argitaratzen ditugu bere «Barne Muinetan» liburutik berezitako ber-  
tso bat; beraren ohorez eta oroimenez oso egokia dena eta azkenean  
Berako semea den Joakin Aldabe «Orixerri» eskeindutako aspaldiko ber-  
tsoak.

Agur, fede, lurren  
nuen itsu mutil,  
zuri esker leizean  
eznuen egin amil.  
Itzak beude Jaunagan,  
naimena zadan bil;  
au baita Argi Betiko,  
ontan nadin murgil.

## «Orixe'ri, erdi zimeldutako loriak

Nai ta naietz kristau ona  
biar dezu, bai, zuk izan  
olako doai bilduma  
daukazuna zuregan,  
lurretikan oso gora  
ain erraz zerana egan;  
on utsen mami bakarra  
ainbeste dezuna eman.

Orixe bakarra zer,  
gure ORIXE maitia.  
Guretzat onuragarri  
zuri begiratzaia.  
Jartzen dezu lorea apañ  
ludi ontako bidia,  
idekiz zabal geroko  
zerurako atia.

¿Nundik nora datorkizu  
olako ontasuna  
zure eskutan Jaun aundiak  
Berak jarri dizuna?  
Lur arrotuan azi ona  
Bera da ereñ duna.  
Berak ereñ, Berak eman  
azkenik onespena.


Zu jaio ziñan egunian,  
izar ederrak argi.  
Arima moldakor ona  
lausorik gar-garbi.  
Aingeru, gotzon guztiaik  
zuten egun pozgarri.  
Etsaia bakarrik zegon  
muñiñ, aserre, larri.

¿Zertako luzatu geigo  
nik esan nezakena?  
Beste eskutik artu dezu  
zuk merezi dezuna.  
Aintza, txalo, besarkadak...  
LEIZA'n zendun omena.  
Uts ta ezereza neria;  
bera da txikiena.

Zure izena, zure lana  
guretzat oroiagarri,  
samiñtasun aldiyetan  
benetan gozagarri.  
Altxa zagun zure izenian  
illezkor urrezko arri.  
Goragarriya bazera,  
gure Maisu onori.

JOAQUIN ALDAVE

## IPARRAGIRRE KOPLARI FAMATU ZENAREN KARTA BAT



Bilboko «Artxandape» Taldeak  
gure Illerokoa artzen du, eta gu-  
ri eskerrak eman beharrez ona  
emen Jose Maria Iparragirre ze-  
nak gure Arturo Kanpion euskal  
yakintsu zenari idatzitako esku-  
titza, edo karta irakurgarria. Iz-  
kribu au yakingarri eta ikurgar-  
ria napar guzientzako izanen  
delakoan argitaratzen dugu. ¡Es-  
ker aunitz bilbotar anaiak!

Iruñeko «Euskal Aldizkarian»  
(Revista Euskara deituan) argi-  
taratu zan, 1878 urtean.

«Eskoriaza, Agorrean 11 eta 1878.  
Nere anaia maite Arturo Kanpion Jauna: Zuri itz batzuek ema-  
teko gogoarekin egondu naiz juan dan aspaldian.

Eta lengo egunean, Anzuolako Irian, erakutsi dirate Moroan  
bandera bat Yunkeran, Nafarrai laguntzera beste probintziatako  
anaiak juan ziranean, Anzuolarrak artuta. Alkate Jaunak esan zidan  
¿Bandera onek bertsoxo bat ez al du merezi? Bai merezi du, baiña  
ni baño bertsolari ohea bear lirake, eta kondaira (istoria), edo ordu-  
ko berri ondo dakiena; baño zerbait esango det, nere borondate ona  
ikus dezaten.

Alkate Jaunak erantzun ziran, Nafarrak denbora artan D. Garzia  
Iñiguez zutela Errege, eta gero Santxo Abarka, bere semea.

Nafarrak Don Garzia  
Errege zutela  
odolez estali zan  
itsuski Yunkera!  
Afrikakoak onuz  
legoia bezela...  
zioten kristau bizirik  
utziko ez zutela.

Baiña Euskaldunak  
laurak bat aurrera...  
zioten fedeagatik  
danok ilgo gera.  
Jo! Jo!... eta ez eman  
pauso bat atzera  
gureganatu arte  
moroen bandera.

Mutillak! ara nun dan  
Illargi erdia;  
arrapatu dezagun  
naiz galdu bizia...  
Ara emen bandera  
Biba Euskal Erria!  
eta Anzuolarentzat  
onra eta gloria.

Erran adiskideak  
orduaz bezela:  
Nafarrakin gaur ere  
anaiak gerala:  
Bat da gure izana  
bat gure bandera...  
itz santu bat bakarra  
«Euskaldunak» gera.

J. M.ª IPARRAGIRRE»

# MENDIZ

## GAZTE GERA GAZTE

Aspaldi ontan gauz bat dabilkigu erri geienetako gazteak: Gure errietan elkartasunik neska eta mutilen artean eztagola, eta igande eta jai egunetan ezdakilgula zer egin. Ori da, ez? Ori nere iduriz problema bat da, baña galdetzen dut gauz bat: Ori al da guk gaur daukagun problemarik aundiena? Neretzat au dela konturazten geran gauzatik bat, baña ez aundiena, aunitzetan pentsatu dut analizatu bear dituztela ezagutzen ditzuten erri batzuek baña ezin dut, ezdakit zallak direlako edo nik buru aunitzik ezdutelako, noski bietatik naasia izango da.

Gu ez estudiante (ikasle) ezta ere baserritarrek gerra, erdian gaude, baña ikasteari baña geiago begiratzten diogu astokeriari, zerriak bezala jan eta edan, eta gero astokeriak egin eta erran, mentalidaderik eztaukagu ezta ere inor emateko, orregatik jotzen dugu bizi errazera gerokoz deus pentsatu gabe.

Batek onela erran zidan: «Gerokoa etzekiguk nola-

koa izango diau, oraingoa beintzat aprobetxatu». Nik orduan «Nik bazekit ire gerokoa nolakoa izanen duk, orrela segitzen badek». Olako milla erranda ere berdin.

Estudianteak (ikasleak) berriz itzuli eta iges egiten digute geienak; txikitzen denak batian ibiltzen giñen eta orain udaran etortzen direnean ezta agurtu ere seguru aski «kategoria» galdutzeko bildurrez, noiz bein-ka batek agur erraten badigu konpromisutik ezin delako eskapatu, or ibiltzen dire denak elkarrekin eta bazterretara begiatu gabe. Gure erri txiki auetan gure adifakoentzat orain beintzat ezdago gauz aundirik, zer bait ikastekotan korrespondenziaz baña guk daukagun buruakin ezin dezakegu geronek ikasi inorren laguntzarik gabe.

Badago bakarren bat dakiena eta ikusten dituen gauz auk, baña eztago gogo aundirik ikusten denez.

BERRITZALLE

## IKASI, MIKASI...

### ¿ZETAKO BALIO DE ZAKUR ALPER BATEK?

«IKASI, MIKASI», erlijiotaz Elkar-izketa ok argitaratzen asi nitzen ezkerro, egunero etortzen zait gizon on bat zerbaiten galdezka. Gizon on bat eta baita emakume on bat ere. ¿Noiztit onera Ebaren alabak izan dire maingiak galdezkan, edo mutiak dakitena zerbaitzeko?

Lengoa, etorri zitzaidan emakume txiki bat, txiki ta elbarria, gaixoa. —¿Zure izena, emakume? —Mayalen, esaten dit, Maria Madalena bataioan jarri zidaten baño...

—¿Zerbait jakin naizen? —Bai; jakin nai nuke gauze bat, aurki ez erraza. —Nik zuri argi eginerazi albana-za...

—Jakin nai nuke, nere senarra salbatuko den, edo ez. —Ori Jaungoikoak bakarrik daki. San Paulo Apostoluak esaten badigu inok etzenzakela esan grazian dagoala, edo ez...

—¿Berorrek ez du bada idatzi «IKASI, MIKASI»n, erlijio katolikoa dela erlijio egizkoa, bakar bakarrik bearrezkoa salbazioa iristeko?

—Bai; milla bider nik ori esan det, eta baita idatzi ere: katolikoa dena, egizko erlijioa duna, zeruko bide xuxenean dela. —¿Orduan?

—Orduan, ¿zuk jakin nai dezuz zure senarra katolikoa den, edo ez? —Orixe jakin naizen nator. —¿Zure senarra bataiatu zen gure erlijio santuan?

—Bai, jauna; bataiatu zen. Baita lendabiziko komunioa egin ere. Ezkondu ere bai, Eliz Ama Santak agintzen duan bezala. —¿Zure senarrak ez du beñere gure fedeak ukatu, edo beste erlijio on bateri izena eman?

—Nik dakitenez, ez. —Orduan, zure senarra katolikoa da. —Milla esker, ta pozik noaie... —¡E! Egon piske baten, emakume.

—¿Ze, bada? —Nik esan dituzt erlijio katolikoa, egizko erlijioa dela, baño... —Nere senarra bataiatua bada, ta bere fedeak ez badu beñere ukatu...?

—Ez da aski. Bear da jakin katoliko EGIZKO den, edo ez. —¿Berorrek ez du esan barnengo gauzek Jainkoak bakarrik dakizkizkila?

—Agirin ere, beste señaile batzuk badire. —¿Ze señaile dee oik? —¿Zure senarrak meza entzuten du igandero?

—Txerrikume sal-erosle bai da, jaietan ere ibilli bear du erriz erri... —Tratalari asko ezagutzen ditut nik, meza bat ere uzten ezdutenak. ¿Nola zure senarrak ez du meza bat ere aditzen?

—¿Zabar xamarra da, gizaajo! —Beñepin, ¿urtean bein konfesatuko da...?

—Frailea etortzen danin, beti kanpoan suertatzen da, ta, orain txartelik ezipaidute ematen, ez dakit seguroan...

—Etxean dagonean, ¿errosarioa errezatzen du? —Oi, emakumeen gauza dela esaten du, ta tabernara joaten da.

—¿Nai dezuz, orduan, jakin zure senarra katoliko EGIZKO den, edo ez? —¿Zeruko bidean doaien, edo ez? —Orixe jakin nai nuke.

—Beontan esango dizut, argi eta garbi. Lenbizi, kontu polit bat kontatu bear dituz. —Konta beza, nai duna.

—Ni Galizin negoala, orain berrogei on bat urte, kontatu zidaten istori polit au, ango erri baten gertatua bezala. —¿Ia, ze istori den oi?

—Ba omen zen gizon bat, zakur aundi baten jabea. Zakur ederra zirudin, txekorra baño aundiagoa, baño oso alperra. Egun guzian etzanda egoten omen zen, lo ta lo. Tiro bat buruan emanda, zakur alperra iltzeko zegoala gure gizona, bere adiskide batek esan omen zion:

—¿Nai dok nik laguntzea zakur ori saltzen, eta milla peztakoat aterako dek? —¿Nola?

—Ik ferira eraman zak, urrengo igandean. Ni suertatuko nauk, erostun bezala. Nik eskiñiko ttiat zortzitan eun peza. Ik eskatu mille peztakoa. Geo, ni aldunduko nauk, eta norbattekin pikatuko dik.

Pensatu zuten bezala, egin. Joan zen gure gizona ferira, ta, an zegoan bere zakurrari erramale-rik eusten.

Zakurre, beti bezala, etzanda, lo ta lo zegoan. Ontakoan, ara non agertzen den gure gizonen adiskidea, ta, arriturik bezala, asten da esaten, aldama-nekoak aitzeko modun: ¡Au zakur ederra, kasta obeenekoa;

Ta, asi zuten tratua. Batek mille peza eskatu. Besteak zortzitan eun eskiñi; eztziren konpondu.

Gezur erostuna (penaz bezala) aldundu zen ezkerro, ara non etortzen den tratua aditu zun gizagajo bat, eta, mille peztakoa karteratik atarata, erosten du zakur alper ura. Bereala, zakurra erdi arrastakan deamala, doaie zortzitan eun peza eskiñi zituangana, ta esaten dio:

—Zu enteratua zeran ezkerro, ¿esango didazu zetako balio dun zakur onek?

—¿Zakur onek? —Bai. —¿Zarrabete —gaita—, edo ardo zagi bat egiteko...!

—¡j...!!! —Mayalen gaixoa! Kontatu bear diozu zure senarrari kontu au. Jakin dezala, zakur bat ona izateko itxura bakarrik ez baita naiko, kristau —katoliko EGIZKOA izateko, ta zeru bidean bizitzeko, ez dala ere aski jaita ta bela bataiatzea eta, emaztea artzekoan, elizen ezkontzea...

A. ASTIZ ARREGI



## AGUR NERE HERRIARI

Urrundik ikusten dut, ikusten men- [dia  
Beraren gibelean, baitu nik herria [nean?  
Jadanik dut aditzen, zorion andia [nean?  
Ezkila maitearen, asperen ezta

Ezkila zer ote duk hik erraten? [nean?  
Urrunera, zer berri ote duk igor- [nean?  
Mendiek hedoiptetik, dautek ihar- [nean?  
Hik errana zerura, ditek helarazten [nean?

Landako langilea, artzain mendikoa [nean?  
Iturriko bidean, doan neskatoa [nean?  
Aditurik ezkila, ire boz lañoa [nean?  
Otoitzen asi dituk Ama zerukoa [nean?

Nik ere dut otoitzen Birgiña Maria [nean?  
Baserrietan, galdu aurren gidaria [nean?  
Neretzat, otoi dezan ardiets grazia [nean?  
Bakean nik kausitzeko, egun herria [nean?


Mendiak utzi ditut, urrun gibelean [nean?

Herria dut ikusten, jadanik aldean [nean?  
Zer duk ene biotza, saltoka bar- [nean?  
Ote duk uts eginen, herrira eltzean? [nean?

Agur, agur herrial, agur sor lekua [nean?  
Agur nere aurreko, leku maitatua [nean?  
Jainkoak aditurik, aur baten oiua [nean?  
Hire gana, duk egun aur bat urbil- [nean?

Bide egiko haitza, zenbatez aurrean [nean?  
Iganeko mezik, etxera sartzean [nean?  
Zenbatez, ez nauk yarri amaren al- [nean?  
Hire adar lodiek egin itzalean! [nean?

Bainan, nere begitik, nigar bat da [nean?  
Bozkarioak darot, biotza gainditzen [nean?  
Etxekoak boza, dut jadanik aditzen [nean?  
JAINKOA, darozkituz eskerrak bi- [nean?



Maritxuk: Orai oroitzen naizena; aizu; arkitu, zinuen azkenean etxe-koandre gazte gaie?  
Engraxik: Bai; nola ez bada? Asmo onakin ta danok bat eginik saia-  
tzea aski.

M.: Gero agiriko! Gaurko egunean ez da nekazal etxera ezkondu nai duen neskatxik: aski ongi dakit nik au: erran natzun len ere.

E.: Zuk iakin, ez: uste. Oraikoari, gaurkoari bakarrik begiretuz bizi direnak, sailtxoa izeki zoritxarrez gutartean: baño zentzu onekoak ere badauzkegu, eta ez gutti, iainkoari esker; naiz ok ez ainbertze burrunbe atera: au de egie.

M.: Nekazariekin ezkondu nai ez duen neskatxa, zentzu gabea ger-  
roztik?

E.: Neskatx batzuk nekazal etxetarako ta bertze batzuk bertze-  
etarako egin ditu laungoikoak. Ez eta ok bide ber-bera eraman bear luke-  
tela diotenak zoroak dire, nere ustez beintzat, alo...

M.: Zuk dakit bada! Neska bakoitza, arrankure dariola!...

E.: Arrazoiezkoak direnean, arrankurek agertzea, gauz ederra ta bea-  
rrezkoa da. Orain arte, makur iokatu gara gauz untan; bertze aunitzetan  
bezala gañera, menekoak eta gazteak beti ixiliz.

M.: Engraxi! Au bizkorra erran duzu!

E.: Zertaz? Ixilzik egonez makur zoazin gauz franko, elkarrekin min-  
tetzuz zuzentzen ari dire; eta aintzinat ere zuzendeko dire.

M.: Nola? Nola? Zarhañe kiderretik uzteko ordue neri ere etorri ordu-  
ko ikesi nai nuke zure agotik...

E.: Batek eta bertzeak gauz batzuetan amor ematean dago aunitz  
aldiz dena edo geiena. Ibili ta ibili, gutti dire nekazal etxe batera ezkon-  
tzeko gogo neskatxei ttipitzen dabeten gauzek.

E.: Zenbait seurik, arront egizkoak.

M.: Zuenarenak? Ia ikusi!

E.: Au sorgine! Iakin bear! Una emen gure etxeoandre gaiaren arran-  
kure bat: etxerako bidea. Gu, ibiliz-ibiliz iarririk, ez ginen aunitz aldiz ohar-  
tzen ere: bera berriz, karretera bazterrean ez bada, ondo-ondoan bizi dela-  
ko, gure etxerako lohiki izitzen...: nola xuxendu? berari arrazoñe eman-  
eztaietako ongi ta bear bezalakoa eginen dugula itz eman diogu.

M.: Arrankure ori bakarrik? Ez dinet uste! Nai duen tokire lohientatik  
prest izenen du, bai!

E.: Lanarena ere bai. Belarrak, iratzeak eta bertze lur-lanak ikeratzen  
dute: ta nor ez?

M.: Or zeon, or! Ez dun, ez, zuen etxean inor gaitz ori sendatuko  
dionik!

E.: Ustez beintzat bai. Beitegi berrie egiten ari gabela ikusi du: «silo»  
baten asmoa ere agertu ginon: idortu bear dugun belarra igitzeko ta bil-  
tzeko tresnak baditugu lendik: txerrien moldatzeko lana erraztu ginuen:  
lur-lan geienak gizonen egiteko gisen iarriko ditugu, etxeoandrea, aiez,  
etxeko lanakin bakarrik gelditu dedin.

M.: Sosa azkar izeki zuen etxean!

E.: Xuhur ta neketan, zuen etxean bezala gurean ere. Baño etxearen  
eta etxeoan onetan diru gastatzeak ez daku minik ematen.

M.: Orai au: zuek arenera, osoki denetan: ure zuenera, zertan?

E.: Gu denetan arenera, ez: arrazoizkoetan bakarrik. Bera ere, batean  
baño geiagotan gureratu da. «Telebisiok» txoratzen du: baño nekazari  
etxean, aurrerapen aundi ta arrigarri orri geiegi begire egonezgeroz, lanek  
atzerapen aundiago ta arrigarriago nai ta naiez. Lanari ta atsedinari kal-  
terik ez egiteko negurrien bakarrik begiretzeko diola itz eman daku.

M.: Itz ori betetzen badu...: eta... etxeko lanak, norentzat?

E.: Eguraldiek dauzke zurekin asten den neskatxak! Bizitzekotan, etxe  
guzietan lana egin bearko dela, garbi ikusten du buru argiko neskatxak.  
Eta dena erosiz bizitzeko, edo diru zaku aundi aundi bet, edo aste bakoi-  
tzean baru bat baño geiago bearrezkoa dela ere bai. Nekazari etxetan  
eltzea zerekin gizen du ta konpondu eta kanabitekin zerei sakail egin, urtea-  
ren egun geienetan, badagola oharitzen da neskatx argie.

M.: Arrazoin din, bai, zenbaitzuk uste ezbadine ere!

IBARRONDO

## Sozialismoren aurrerapena

(JARRAIPENA)

Bi gogorapen berri batez ere asko balio dutenak ekarri dazkigu sozialismoak:

Lendabizikoa kooperazioa, alkartasuna. Erakutsi digu sozialismoak gizonak —gei-ago beartsuak badira-alkartu egin bear dutela beren askatasuna galdu nai ez badute, kapitalismoaren makina bat beren burua egiaz. Ez du onek esan nai gizona sozieda-depean jartzen degula gaur guztietarako. Au ere bere askatasuna galtzean izango litzake; baizik gizonak bere naiez aukeratzen dun sozieda-de orrek, bere askatasuna pixko bat mozten diola, bakarrik geldituta dena galdu ez dezan.

Bigarren aurrerapena, justizi, zuzentza, soziala deitzen dan gogoera: gizonen gorabe-  
retan beti gizon direla gogoan eguki bear dela. «Estaduari gizonak eman bear dio, esaten dute, al dun guzia, ta es-  
taduak itzuliko dio bear dun guzia». Onengatik ezkondu batek irabazten du ezkondu-  
gabe batek baño geiago. Ez baitu lanak bakarrik esan nai. Eta jaiotzetik paralitiko den batek estadutik bear dun la-  
guntza izatea eskubide du, lanik egin ez badezake ere. Ta ume batek, mutil batek bear dun eskola artzeko era izatea eskubide du. Ta esku-  
bide izatea da deretxo izatea; ez maitasunaren edo karida-  
dearen bearrean egotea. Beste aldetik, aberats, al dezakenak izan bear du jaso dezaken añeko kontribuzioa; ez txi-  
kiagorik.

Ona nola gizona makina bat bezala erabili ezin dite-  
ken: «Ainbeste eman, ainbeste artu». Begiratu bear dire gizon onen egonera ta izane-  
ra gogoan egukiz bere goraberetan.

—Ez al da gis ontan artu ezkerro aurrerapen bat sozia-  
lismoa?

Egiaz gaur demokraziak —erriaren agintzak— egiaz-  
koa izatekotan Sozialismoa eskatzen du.

P. ZABALETA

# ERRIZ - ERRI.



## SALDIAS

### BEITEGI ETA ONGARRITEGI BERRIAK

Gaurko osasuna zaintzeko erakaskizunak esaten dute bizilekutik berex egon bear dutela azindak eta ongarrria. Zergatik bada orrela?

Azinda gaxo dauden ats txarrez kutsatu ditezke lelakoz etxeko bizilagunak. Baita ere ongarraren lañoak etxeko zurak ondutzen ditun bezala ondutzen ditu gure birrikak.

### ESNEBEI BERRIAK

Gure errian azinda berriak sartzeak asko poztutzen gaitu denok. Ola batera tresna berriak ekartzea oezela da. Berritze onekin beti zer-baiten aurrerapena billatzen. Batez ere au billatzen da: Lan eta gastu berekin «probetxu» geiago ateratzea ja. Au oso gizonki eta modezko jokatzea da. Baño bada gure tarlean gauzan baten palta. Gure betiko tresna (beiki) oiek nola erabili eta nola zaitu erdaku geiegi. Asko gauza badira oso erraxak, ikastea ezer kostatzen ez direnak, ta gurretzat oso mesedegarri lirakena jakitea.

Alabidez bat bakarra esaten dut: Esnebei bateri zenbat zendale (pentsu) eman bear zion eta zenbat aldiz edanerazi. Berrito aski gai oietaz Donezteben itzaldiak izan dira, baño ezduz ueste iñor izan denik gure erriatik aietara. Zerbaie egitea daukagu gauz oiek ikasteko. Ia datorren neguan *zerbait egiten dugun, edo norbait ekarri guri erakusteko.*

### ERRIKO KARRIKAK

Lan guziak egin-ta gero zeifien ongi ematen duten. Auxe bera esan genezake gure errian egin den lan ederraz.

Bai apagarria dela egitan gure erriarrak jarri duten sasoi auzolan onetan. Oso egoki jokatu dira eta gogotsu egin dute lana. Lengo denboretan ez dakigu auzolanetan nola egiten zuten lana. Au da, asko edo gutxi. Baño oraingo esan dezakegu, aurtan aña lan aspaldian ezdala egin auzolanez, gure errian. Gaurko eratan jokatzeko asi gera: *Elkartuak lan egiten.* Auxe da aurrerapenen jabe egiteko bidea eta gure erriak eta erri guziek bear dutenak.

Baserritarrek oso txintxo etorri dira erriarrak laguntzera dei egin dieten guztietan. Egin duzuten lanaz eta zuten tarteko batasunez zorianak biotz biotzetik!



## ULZAMA

### GAZTERIEN GOGAITZA ETA JOSTAKETA

Principe de Viana deitzen den 13'gn. zembakian, agertzen da Lesakako erriko idazkai bat, galde modu au egiten duena: ¿Zer gertatzen da Lesakan? ¿Zergatik gazteak yai egunetan, iges egiten dute beren erriak? Zer gertatuko da? Beste errietan gertatzen dana. Gaur beti bezala, negar asko egiten da, baña gaur bezin ugari diruz, ezire sekule bizitu; beste alde, gaurko erraztasunak, alde batetik bestera juateko naioak dauzkate; baño, oyeke ezirela aski, fedezko gauzetan, gero eta atzerago goaz, eta jakina da, zenbat eta fede gutxiago, biotzetan otz geyago, eta otz ori kentzeko, jauten gara munduko gozamenen bila; makurrena da, ezirela, naiko jostatzeko bideak izan ta ere, asetzen; leku guztietan, bela aspertzen

dire; priseka alde batera, priseka bestera, zer egin ezta kitela, beren barnean duten illuntasun ori, kentzeko. Biotza ezta lurreko eta mundu ontako gauzein bakarrak betetzen, baizik goitiko maitetasunarekin, zeruko arintasunarekin, itz bati fedeko gauzein. Gizon askituitik gogoz, zorionekua izateko, ez tu beste bearrik; eta era berera, beste gañerakoak. Gaurko gazteak ludi ontako gauzak geyegi ere dauzkate, baño gauze ok, ezdiote biotza betetzen, eta naiz pozez itxurez bi zi, ala ere joaten dira or barna, alaitasunan billa. Beren barna pakean dutenak, pozik egoten dire beren etxetan.

«SAYOA»



## LESAKA

### «GURUTZE BAT LESAKA GANEAN»

Ortzeguna da, ta Lesakan ezdago yosere denpora pasatzeko. Egualdia ezda oso ederra, baño alikan ere danok nai gunuke mendira arratsalde pasa yuan.

Nora?, galdetzen gera elkarrari. Batzuek toki batera erraten dute; bertziak bertzera, ta ezdaku nora abitu. Ordu gure lagun batek erraten digu: Zer iduitzen zaiue Frañere yuaia? Frañ da mendi bat Lesaka gañean dagona, aundi borz eun metrokua gutxi gora bera. Bi aldiz pensatu gabe, abitzen gera.

Lenbiziko, bidia ona dago, bañan abudo yarrizten da gaixtua. Au ezda yosere guretzako, gaztiak bai gera, ta maukak egin ondoren, segitzen dugu atzinerara.

Bi bide orain agertzen zaigu. Motxena artu ondoren, alletzen gera itxurre txiki batera. Zintzurra busti ondoren, begitzen dugu mendi tuntuerrara. Urbill iduitzen zaigu, ta denpora auzin espetu gabe, atziñera berriz. Amar minuto ibill ondoren alletzen gera gu nai genun tokira.

Aize otza zabillan, ta txoko bat arrautu ta, berentzen asi giñan. Au abudo akautu genun, ta gurutze ondora yuan giñan solas ta solas. Andikan ikusi genun au, urrutxi, mendi tartean sartuak, lau erriksa. Konturatu geran zirala, Lesakakin batean, Naparroko «Bots Erriak» egiten zutenak. Gero begitu ginion Gurutzeari. Batzuek au etziran beñere izandu ta milla galdemodo egiten asi ziran arengatik.

«Au paratu zuten emen —erran zun batek— 1943 aldera. Orduan lesakarrak konturatu bai ziran onen biarra bazutela. Amar urte gerogo norbayerek moztu zun beko iskitik ta mendi betxi bota. Iru lesakaren artean berriz subitxo (igan) zuten ta lurrean sartu-lenogo arrizko mai baten gañin zagon— ta utzi, erran bai zioten burdeñezko bat eramen bear zutela abudo. Baño urte aunitz pasatu da ta au emen dago txutik bertzerik torri gabe».

Au erran ondoren, danok isillik gelditu giñan. Norbatxerek erran zun arrosarioa errezatu bear zela. Ta au egiñ ondoren, ya illundua baizen ta, azken agurra egiñ ondoren Gurutzeari, abitu geran berriz etxera, pentsatzen, Gurutze bat mendi tuntu batean, denak ikusi dezaten, dela gure Religioaren gauzik ederrenatik bat.

KOSKONTA



## LEITZE

Gure erri polit ontan, ba daukagu zeinbat gauz, deusere esaten ez duenak bere edertasunaren alde.

Orain dala urte gutxi, egin zan indarka bat apaintzen; etxe zuri-izeak, errin erdian arkitzen diran

baratzen itxituak txukuntzen eta karrikak edozein uri ederrenaren antzera utzia, batere loik gabe ne-gu gorrigorrian. Au egin zan, egia esan nai badegu, Lizarraga'tar Premin jaunaren denboran, bera Udaleko batzarraren buru zala, zeñ, zori-ondur giñun bere garaian, eta gaur berritzen diogu, baita eskerrak eman ere.

Gero etorri ziran olak edo fabrikak eta ondoretik gure Ikastol ederrak, erriko ta inguruetako gazteak ikasi zezaten, bai nekazaritza ta aberetaz, bai olatarako. Olaak bereganatu zitun lur zati batzuek bere lantokiak ipintzeko, nola Ikastolak ere bere gora-beratarako. Ikusten ditugu zein apaiñak dauzkaten, olak eta Ikastolak, beren bideak eta inguru guztiak, eskeintzen diguela ikasgai eder bat, bakoitzak bere txokoak txukuntzeko.

Erriko biztanleak, ez degu ordea ikusten ispillu ortan, gure etxe ondoetan zer egin genazeken, bideak eta enparantzak garbiak edukiaz, ainbeste egur ta zakar pillaratu gabe orbe guztiak gerenak ba giñuz bezala. Nonnai daude zama-gurdi aundiak (kamionak) bideak erdi-itxiak uzten dituela, tokirik politenak eta atsegifienak urratzen dituela bat ere ajolarik gabe, beren jabe-ongi datorkielako. Agintarien aldetik txintik ere esaten etzaioala. Erriko apaintasuna, beste gaien artean, Udal-batzarraren egitekoa da, ta erriarrak egiten ez degunear genen buruz, beartu bear gaitu zabarrak ez izatea. Bestenaz ez da Agintaria.

Oneraño esaten deguna ez ba dago ongi, eta bai tioso gaizki, beste gai batek gauzkagu lotsaz beterik eta biotz-mindurik: gure illerriaz, (camposanto). Iñorena ez balitz bezala arkitzen da. Bide txarra Aizpe aldetik; ate-aurreko zelaitxo ura, arri-kazkarrez, lurrar eta lurrar gailurrerako bete, aurki zerraldokan diezenak igaroko ez diran eraño, orma guztiak larrar ta untzez estaliak, zinkikeria dariotela, barrendik ta kanpotik. Barrengo bidetokio askotan belarrakin estaliak, intz pixka batekin ibilli ez ditakela bustibusti gabe, eta biderik ez dagoan tokian zer esanik ez.

Ez da egun asko, lotsatu giñala antxeko ate aurrean, leitzarrak giñala esatea tolosar batzuen aurrean, zai baitzeuden gu bezala atea iriki zezaten.

Galdera bi orain: 1'go. ¿Ez da gure erria gai, olaxe baño begirakun geixago izateko berari?

2'gn. Siñismenaren ezaubideakin aurretik joan zaizkigun eta pake-loan dauden gure odoloko diran ta ez diranak, olako zabarkeri ta utzieren gai dira? ¿Gaxoak!

Esango zaigu bear bada, ez dula iñork ari nai lan ortan. Izango da egia noraño bada ere; bai baña nai giñuke jakin, zer egin dan, ortara beartuak dauden aldetik, gai orri bere bidea emateko Jaungoikaren izenean eta txanponan bidez. Ez gera nolanai eskuratuko, ez dala iñor ortarako argi-bide ori esatekin. Ez gera arrituko ere entzutean, ez dagoala txanponik. ¿Ez dagoala? Nai ez denantzako ez noski, baño gai au ere azterkuko da pixkaka-pixkaka, Jaungoikoa bitarte, ba gure erri kuttunari diogun maitetasunak bulkatzen gaitu ortara. Ez iñor mintzeagatik.

GURATZ



## BAZTAN

KANTARIAK

Elizondo'ko kantari-taldeak edo «Coralak» aurtan 25 urteak betetzen ditu eta bere sorkundearen ogeitebortzgarren urte burua zilarrezko eztaien gisera ospatu beharra da, ortaz bada «coraleko» zuzendariak nai luteke ohorezko omenaldia antolatuta Biental deritzaion kantari besta aundia eginez. Besta ori antolatzeak buru-austeak izanen ditu

## 1967'go Naparroko Irugarrien Sariketa

Foto-lrudi onek Naparroa munduan zear ezagunerazteko 1967'go Irugarri edo Txartelen Txapelketaren lenengo saria irabazi duena erakusten digu. Iruñeko Lozano de Sotes deritzan pintore, antzelari eta trebetasun aundiko gizon famatua bere egillea digu. Berrogei tamar pezetako saria irabazleak jaso du Naparroko Fuero-dun Diputazioak emana, au izan baita Txapelketa onen eragillea. Bigarren premioa, eta irugarrena, Donostiko Antonio Salbador eta Pariseko Albert Steimann yaunek jaso dute (amar pilla pezetako bakotzak).

Gure zorion sutsu bat garaille gelditu den Lozano de Sotes lagun maiteari, eta bere Irugarria edo Txartela, nunduan zear korritzean, gure Lurraldean ezagutzeko jendeketak ausarki erakarri ditzala. Donostiar eta Paristar yaunei ere gure goresmenak ar ditzatela.



Donostiar eta Paristar yaunei ere gure goresmenak ar ditzatela.

naski bainan elizondar kantariak lampide ori zaletasun aundiarekin artu dute eta gañera Balleko Etxeak eta Diputazioak beren laguntza eskeñi dabezte. Badugu uste Biental delako besta guzien gañekoa izanen dela eta Yainkoa lagun Burularen lendabiziko asteen egin gogo omen dute iru egun irau nen duelarik. Euskalerriko kantari-talde oboerenak ariko dira eta espero ditugu, Donosti, Iruñe, Gazteiz, Bilbo, Biarritz eta euskal zazpi probintziatoko kantariak, behar bada amabi edo amabortzeteraño. Ortziralez asiko da eta egun ortan latinezko abesten eguna izanen da, larunbatean euskal abestiena eta igandean denetatik. Obekienak kantatzen dutenek sari ederrak bereganatuko dituzte, ortarako izango dira epaikariak edo juezak, yaun yakintsuak eta uste osoko gizonak. Berri onek aunitz poztu gaitu, zeren orrelako bestak gure eskualdeari ohore aundia emanen baitiote, Elizondo eta Baztan'go izena aipatua eta goresia izanen baita eta azkenik Euskalerriko abeslarien elkatasun ori zazpi aurrideren besarkada izanen delakotz.

Eta orai asmo on oiek gerta ditze'ta eta ez daitzila ametsak ba karrik izan.

BESTAK

Baztan alde untan lendabiziko bestak Irurite'koak izaten dira, ortaz bada besta oiek erreliste aundia dute eta urtero urte mundu bat yende biltzen da. Aurten ere bertze urtetan bezala izan dituzte, elizkizun ederrak, euskal-dantzariak (aurten dantza berriekin), erreboteko partidak, bizikleta lasterketak eta «Orkesta Alegria» rekin naiko soñu ta dantza gazte yende ederki yostatu delarik. Aurten bertsolariak ere izan ditugu eta an ari izanak dira, Lasarte eta Lizaso K'emente laguntzale zutelarik. Iru koblari ok yendea xoratu dute kan taldi ederrak eginik eta entzuleak atsalde goxo bat iraganik zer txalo ta esku-zartak egin ete zituzten gure bertsolarien ohoretan...

Yosteta maitagarria bai zinez eskualdun yendearentzat. Besta ederrak izan dira eta yendea ere pileka, emen ikusi ditugu Baztan, Bidaso, Ultzama, Iruñe eta Gipuzko aldekoak ere.

Urdazubitarrek ere beren erriko bestak ospatu dituzte, an ere elizkizun ederrak, pilota partidak eta soñu auserki izan dituzte'a. Yende aunitz, batez ere Lapurdi aldetik etorriak.

Iruñe eta Urdazubi'ko bestak igaro dira eta gero datortz'g'u, Arizkun'goak San Juanetan, eta

Almandoz eta Erratzu'koak Sanpedrotan.

IZETA

### ELIZONDOKO AMABOSTALDI-KO MERKATUA (Jorraitak 15)

Zaldizko abereak: Pottokoak, zortzi millatik amabi milla pezetara. Begorak, bederatzi millatik amazapi milla pezetara. Pikatzeko zaldiak, zazpi millatik amabi ta bostem milla pezetara.

Merkatua illuna izan dugu. Debeku dute sarrera merkatuan «main geria» artzen duten abere guztiak; sartu dira bakarrak zaldizkoak. Tularien artean eske aundia izan dute pottokoak.

Illabete ontan atera dira gure balletik, Zaragoza, Lerida eta Gazteiz (Bitoria) aldera 700 zerrikume bi illabete aldekoak, ordainduz bakotxa zortziemundik bederatziemund ta amabost pezetara. Gipuzkoara eta Iruñera 50 aratzen gizenak pikatzeko, ordainduz 55'tik 60 pezetara kiloa bizik.

## DONEZTEBE


### DONEZTEBEKO AMABOSTALDI-KO AZOKA (Jorraitak 14)

Itxirik dago oraindik merkatu edo azoka, bei, ardi, auntz eta txerientzako. Orrengatik sal-erosketak egiten dira aberetegi bertatik.

Gorbera aundirik gabe sarietan, naiz bizitzako nola aragitako abere-tan. Bakarrak aragitako txekorretan, goralde erabaki da balioa.

Sariak: Bizitzako abereak: Bei onak, esnetan edo ernari, 25.000'tik 36.000 pezetara; bei gazte edo miga ernariak, 23.000'tik 28.000 pezetara, eta txerrikumeak 850'tik 1.000'tara.

Aragitakoak: Beia ogeitamartik ogeitamalau pezetara kiloa bizirik; esnetako txekorrek, irureundik irureun ta sei pezetara, eta aundiagoak, berrogei ta lautik berrogei ta zortzi pezetara; Txerri gizenak, bertakoak, ogeitamartik ogeitamabi pezetara, eta York, ogeitamalautik ogeitamasei pezetara; ardi zarra, emezortzitik ogei pezetara, eta esnetako bildotxa, berrogei tamalautik berrogei ta amabost pezetara.



## ...eta beti EUSKERA elburu

Etzaigu inoiz aspergarri euskera gatik idaztea, mintzaztea ta jo-ta-ke aritzea Zorionez, politikxo goaz euskera'ri, buruzko gauzetan. Egin dan lanari begiratu ta bera aztertuz pozten gaitu. Bañan... aurrera begira dezagun eta izenbat egiteko ikusten degun oraindik!

Euskal-erria aunditzen jarrai dezagun. Obeagotzen "Uztarri" baten bidez euskaldun guziak batzen. Ez degu besterik billatu ta nai bear, baizik, gure errien ona, beti bide zuzenetik jarrai dezan.


Maite dezagun euskera ta, maiterazi. Otxak dabiltzan euskaldunak epeldu ditezela; ta epelak berotu. "Gurea" izan de-dilla beti orain arte izan degun NORTASUN ta JATORTASUN ori. Millaka ta millaka urteetan dabilkigun euskera au, arri-garrizko izkuntza au, maiterazi ta zabaldu dezagun.

Europa geieneko izkuntzak, elkaturik bezela daude, ba-tzuek batzueri, ta besteak besteeri, famili ta aideko diran eran, bañan, gure euskera, igure antziñako euskera xaarrak! ez dau-ka inoixoren antzik. Ez du izan sendirik —izango ere ez— ta ez lengusurik. Adixkiderik ere ez... Bere baitatik ta bere bi-dez jarraitu izan du Europa berak, etzenkan gaur dituan iz-kuntzak; oraindik etzitzen ezagutzen, Bañan, gure euskera ba-zan. Ordurako "amona" xaarra zan. Ain zuzen, arira ekarriko dut ipui bat. Obekiago esateko, gertaera bat:

Esaten zaigu, nola bein batian, Grezi'ko gizon bat, pan-parroi omen zegan bere antziñako jatorriari begiratuta. Eta egun batian, or numbait, mundu zabal oietan... topatu omen zan euskaldun "aiton" xaar batekin. Beren izketaren barrenean zeudela, onela esan omen zion "grezitarrak" euskaldunari: ¿Ba-aldakizu, adixkide, gu, grezitarrak, orain dela milla urtetik onuntz gatozela? "Aitonak", estualdi gutxi emanik bere bu-ruari, au erantzun omen zion: "Gu, euskaldunok, ez gatoz, bai-zik-ta betitik bagera"... Eta arrazoi aundia zeraman, Euskal-dunak ez gerala orain milla urtekoak... lauekuak... amarre-kuak, baizik, amalau milla urtetik gorakeak.


¡O, zu, arrigarrizko euskera, irauñ ta jarrai zazu menderen-mendez! ¡Zerutik jetxia zeran ezkerro, irauñ, denok zerura juan arte!!!

G.TAR Y.



### PILOTARIAK

Nafartar pilotazaleak pozik gau-de. Norik erran behar zuen orai dela sei urte gure pilotariak obe-



renen artean ikusiko gintuela? Inork ez luke ori erranen, bainan urte guttien barnean aldakuntza

# KIROLOK

aundiak izaten dira. Aurtengo bi-garren mallako esku uskako pilota txapelketan, Retegi erasundarra eta Lajos ultzamarra denen gañetik oberenak atera zaizkigu eta bi napar oken artean Txapelketako Azken partida yokatu dute. Yoan den Apirilaren 23'an Bergara'ko pi-lota plazan ari izan dira eta bien arteko gudukaldi untan Retegi era-sundarra irabaztun atera zaigu Lajos garaiturik 22-14.

Retegi sasoin izigarrian agertu zaigu, orren besagañak pilota erra-usten zuten eta ultzamarrak etzuen deusere egiten ahal. Trabesak len lenbizitik Lajos'en alde zauden (200-80 ri) eta baita 200-40 ri ere gisa ortan bortzgarren tantoraño irauñ zuelarik, gero Retegi'k aint-zinañdia artu eta 12-7 bere alde zuela trabesak itzulikatu ziren 100-70 erasundarren alde uyu egiten zutela. Partida erabakia zagon, Retegi beti aintzinean ogeitabi tan-toak bururatu zituen auzia airez aire irabazirik 22-14.

Retegi Txapeldun, Zorionak. Gu-re goresmen bizienak bi pilotarieri, goan Lajos'ek Retegi'ri irabazi 22-Nafarroaren izenari ohore aundia egin diotelakoa pilota yokoan goi mallaraño goratuz.

bai alafede! Or ageri da bi pilota-riak berdintsuak dire'a, bainan behar dugu erran Lajos'ek sakean bentaja pixka bat bazuela, unek iru terditik egiten baizuen eta Retegi'k lautik Erasundarrak tan-to bat bakarrik egin zuen saketik eta ultzamarrak zazpi. Partida arras atakatua eta bi pilotariak sa-soin ederrean.

Partida unen ondotik yokatu zu-ten, Pierola eta Etxabe X, Madrid eta Soroa'ren kontra. Gudukaldi ederra au ere eta Pierola eta Etxa-be irabaztun 22-17.

"Labrit" mukurrurraño betea eta yendea kontent.

### OSTIKOKETA (FUBOLA)

Donosti'ko "Real Sociedad" dei-tutako futbolarien garaipenaz na-parrak kontenturik gaude.

Donostiarrak lendabiziko malla-ra igo dira eta ohore ori ardiestea guzien gañekoa izan da, ortaz ba-da gipuzkoar futbolariak gure zo-rionik maitekorrenak merexi dute eta irauñ dezatela beti negurri or-tan. Ya bada gure "Osasuna" da-torren urtean bertze aimbertze egi-ten duen eta denak garaiturik len-dabiziko mallara igaten den do-nostierrekin batean egon ditezten. Aurrera mutillak! Aupa Donosti, eta Altza Osasuna!

Iru egunen buruan Iruñe'n par-tida ori bera yokatu zuten eta orain 19. Pilota yokoaren itzilipardak



## ORNOTZ'EN PELOTA'KO EGUNA

Erri polit, ontako Anai Maris-ten Ikastetxeak, XXV garren al-diz jokatu du "pelota'ko eguna".

Maiatza'ren ogei ta bederatzi ga-rren egunean, eskuz-esku ta au-rrez-aurre, jokatu dute gaurko egunetako pelotaririk onenak. Jau nak lagun, goizeko amar terdietan asiko dira zein geiagoka.

Ez da oraintzeko eginkizuna Oro-notz'ek, Ikastetxe onek, aurrera ta argitara eraman bear duen egun orretako "pelota'ko eguna". Milla bederatzi eun ta ogei ta zortziga-rren urtean, ikusiko zituen Oro-notz'ko erriak Ikastetxe onen atea-k zabalik ikaskintzarako.

Don Martin Urrutia Ezkurra, Ornotz'ko "Enondoa" etxeko se-meak, bere sort-erriari utzi nai izan zion oroitzapen aundi bat; eta auxe izan zan bere erriari uzten al izan zion oroimenik ederreña ta bikañena: bi Ikastetxe, bat mutil ta bestea nexkeen ezierako.

Bañan, eziera ez-erik, eziera orren parez-pare juan izan oi da

kirolik (deporterik) ederren ta goragarriena: PELOTA. Eta... orain galdera bat: inor izan da Ornotz'ko Ikastetxeo kirolariarik, depor-tistariak azkarrena, argitsuena ta bikañena? Nortasun, jatorrasun ta bizkortasun ikaragarriko gizon bat: DON XEGUNDO GANGOL-TIA praille Marista. DON XEGUN-DO izenez, bañan, DON "PRIME-RO" obe litzaiekona... zergatik, "aurrea" gutxi-k kenduko dioten praille umill-buru-argi ta biotz za-balekoa dalakotz; itz batean, us-kaldun jator, "deportista" bikain ta benetako praille bat, dalakotz.

San Martin izeneko Ikastetxe onen atea-k zabaldu baziran zabal-du, bertantze izan du Ornotz'ek "zorion" aundi bat; au da, Ikaste-txe orretan denontzat izan dan maixu edo irakasle; laguntzalle, askoren estualdietan, ta aolkulari (kontsejatzalle) bearratan arkitu izan diran guzientzat. Praille lan-gille amorratu oneri esker, ikuste-ko franko izan oi da pelota'ri bu-ruz.

Emen jokatu izan zuten gara-i batean. Frantzin txapeldun ziran LADOUCHE, ARRAMBIL L E T, AGUERRE ta beste zenbaitetik emengo oberenen aurka. Aurten ere, ez mugaz beste aldekoak, ba-ñan bai emengo onenak (txapel-dunak) ikusiko ditugu, Jaunak la-gun, Ana i Maristen "Santiago" frontoi ederrean.

Aurretik, denoi iiongi etorri!!

GORTARI YON

tsin egiten dute meza. Meza ori iza-ten da arratseko amekak ogei gut-titan. Eta meza orretan kentzen du-te lutua. Meza ori akitzen da goi-zeko ordu bat eta kuartotan.

Pazkoko igandea da bertze igan-de bezala. Iru meza izaten dire, lenbizikoa zazpitan, bigarrena bede-tzi terdietan, eta irugarrena da ameketan.

Au da Sumbillako Aste Santua.  
M.<sup>a</sup> PAZ GUELBENZU 11 URTE



### SUNBILLA

#### SUMBILLAN DEN PAZKOKO KOSTUMBRIA

Erramu egunin dute meza-nagusia goiko ameketan. Lenbiziko egiten dute erramuaren bedeikazioa. Gero atretzen gera kampun barna proze-siuan. Eta prozesiuan yuaten gera seiraka. Eta gero ematen du apai-zak meza.

Mezan ondotik ematen dute de-nari erramo bana eta eramaten du-gu bakoitzak beren itxera.

Astiazken Santu egunin ematen dute meza goizko zortzitan. Eta meza eman ta gerogo asitzen dire pratzen figurak. Eta aurtien paratu dute lenbizikoa: Jesus belaunikatua erretzen eta aingero bat kopa bate-kin. Gero Jesus lotua soka batekin eta gurutzea gainin eta gizon bat gaiztoa eta soldado bat eramaten diotela. Gero Jesus gurutzean Ama Birjiña eta San Juanen erdiyin. Ge-ro Jesus obratua sepulkrun. Eta ge-ro Ama Dolotukoa. Paratzen dute aldare txiki bat eta aren bi eskiñin bi aingero.

Ortzegun Santu egunin da Jesu-kristok bere apostolukin Azkeneko Aparia egin zuna. Eta Azkeneko Apari ontan egin zun paratu Euka-ristia.

Meza ematen da. Glorian eskola-bak artutzen txilitxak eta yotzen dute Gloria akittu arte. Gero apai-zak erraten du Jesusek erran zun itzak. Egun orretan aundiz yende izaten da mezan.

Ortizil Santu egunin goiztin egi-ten dute Kalbarioak kanpun barna. Egun orretan da Jesus iltzen eguna. Atsaldeko bostan izaten da meza bezala. Eta prozesiuan atsaldin bez-titzen dire amabi mutiko soñoku-kin eta soñuku oyek dute koloria moratua, gorrua ere dute moratua eta soka batzuek gerriyan.

Prozesiuan yuaten dire yauztzi-yak gizonak arpegia eta dena tapa-tua. Eta sei gizonen artin eramaten dute figurak. Lenbizikoa yuaten da Jesus belaunikatua erretzen eta aingero bat kopa batekin. Gero Jesus lotua soka batekin bere gurutzia ga-ñin gizon bat gaiztoa eta soldado bat eramaten diotela Gero Jesus gu-rutzean Ama Birjiña eta San Ju-anen artean. Gero Jesus obratua se-pulkrun. Eta gero Ama Dolotukoa. Mutiko bat ere yantziya galzak bel-tzaz eta bandera beltza.

Eta kantarak eta kantarik kan-tatzen dute.

Larunbata Santun goizian egiten dute Kalbarioak erderaz. Eta arra-

Etxekandreak ardo xahar bat ateratzen dio adixkide bati.  
—Ni jayo nitzen urteko ardoa!  
—esaten dio emakumeak.  
—Ez nuen uste ain zaharra izan-go zanik...

Bi Praile. Alde baten, sartu omen ziran erri baten. An barna zabil-tzelirik, ikusi omen zuten muttiko bat, ta deittu ondoren, erran:

—I motell, nola dik izena erri onek?

—Ta bertziak: **Ikas zazue.**  
—Beerriz Praileak: Nun duk emen Eliz Nagusia?

—Gazteak berriz: **Billa zazue.**  
—Orduan Praileak koletu-ta: No la dik izena Erretore Yauanak?

—Ta muttikoak: **Galde ziozue berari.**

—Ondarko Praileak mutur txa-rrekin: Emen zer egiten duzue mut tiko gaiztuekin?

—Ta aurrak: **Praile biga'tzen di-tugu.** Ta eskuak boltsan sartu, ta xistu soniuan, martxa egin zuen.


—Gizona, gizona! Nola galdu du-zu, ba, zure erlejua?  
—Nola, nola... **Etzen ibili nahi eta, nik aurrera segitu!**

Txakur amurratuak aurrari oz-ka egin eta medikura, Eguerdi da. Sendagillea bazkaltzen ari:

—Zuk ez dakizu au ezdela ga-raia?  
—Nik bai; baño txakurrari esan behar diozu... jauna.

Mozkor bat elizan sartu ta jen-dea kantuz arrapatu du. Ur bedeinkatu untzian eskua sartzen du ta:

—Atch! **Etxe ontan salda otza, baño jendea gustora dela!**



Txakurak:  
—Ba dira txakurrak beren na-gusiak baño ezagutza gehiago du-tenak. Aurrak: —Gurea bezela!!!

—Auxe da uda beroa. Modu on-tan ez dago ezer egiterik!  
—Nekazaria al zera?  
—Ez; paragos saltzalea.

Medikuak mozkorrari:  
—Ola segituz zu etzera zahartu-ko.  
—Ez nuke nahi ere!  
—Etzinukela zahartu nahi?  
—Ez. Gazte egon behar du, gaz-te, gizonak!

Bizikletan mina artu duenari:  
—Lenbiziko aldia zen bizikletan zinabiltzala!  
—Ez; azkena.

Madril'en:  
—Kanpotarra naiz. Mesede egin-go zinu ke bost durokin nun jan nezaken esatez?

Guardiak:  
—Zoaz alako kaletara, eta beste alako ataritan...  
—Eskerrik asko. Eta mesede egingo zinu ke bost duroak nun arrapatu nezazken esatez?

Oinetako saltzalearen etxean:  
Aitak: —Mesedez seme onenda-ko zapeta pare bat.....  
Saltzaleak: —Zer numero?  
—Nere semeak ez du numerorik.  
—Nola da ori?  
—Ez bañdu sekula oinetakorik jantzi! Lenbizikoak ditu...

—Ama; ez al zera lotsatzen zure adinean ala pintatzez?  
—Bai, seme; orrengatik jartzen niz ain gorri...